

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako Batzorde Akademikoaren 1/2016  
hitzarmena, urriaren 20koa,

## **BEGOÑAKO ANDRA MARI IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN MUGIKORTASUN-PROGRAMEN ARAUDIA**

arautzen duena.

### **Arrazoien azalpena**

Nazioartekotzea eta talde kulturantz eta eleaniztunetan txertatzea, faktore gakoak dira etorkizuneko profesionalentzat. Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan (aurrerantzean, BAM) Lehen Hezkuntzako gradua egiten ari diren ikasleek ikasketa-trukerako mugikortasun-programa ugari dituzte, aukera ematen dutenak abilezia sozialak eta komunikazio-trebetasunak garatzeko atzerriko hezkuntzaren batean, eta orobat, kulturarteko kompetentzian sakontzeko. Horrez gain, oso elementu positiboa eta bereizgarria da ikaslearen CV akademikoan. Winkel-tripel

Ikasleek mugikortasun-programetan parte hartzeak berariazko araudi bat eskatzen du, beharrezko eskakizunak eta prozedurak jaso eta arautzen dituen.

Horri jarraiki eta beharrezko izapideak beteta, BAMEko Zuzendariaren ekimenez, zera

### **XEDATZEN DA**

#### **1. artikulua Mugikortasun-programen oinarrizko ezaugarriak**

1. Programan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da hirugarren mailako ikaslea izatea BAMEko Lehen Hezkuntzako graduan, eta eskatzen diren baldintzak betetzea.
2. Programan parte hartzen dutenek seihilekorako edota urtebeterako egonaldia eska dezakete, BAMEkin ikasle-trukerako hitzarmena duten atzerriko edota Estatuko unibertsitatearen batean, kontuan hartuta aipatutako hitzarmenaren ezaugarriak.
3. Ikasleek trukerako hitzarmenek berekin dakarte BAMEko Graduoko ikasketa-planean onartzea beste unibertsitate batean egindako ikasketak, eta hala jasotzen da ikasketak bukatzean ematen den Tituluaren gehigarri europarrean.
4. Beste unibertsitatean dauden artean, ikasleek BAMen matrikulatuta jarraitzen dute.
5. Trukea hirugarren mailan egin ahal izango da soilik, eta seihileko edo urtebeteko iraupena izango du.

6. Ikasleak truke-egonaldian egindako ECTS kredituen kopuruak berdindu egin beharko du BAMen Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasgaiak dutena, aurreikusitako kompetentziak eskuratzen direla bermatuz.
7. Baldin eta xede-unibertsitateko eskaintza akademikoa ez bada ECTS kredituetan neurtzen (adibidez, Ameriketako unibertsitateetan), bertako ikasle baten ikasgai-kopuru estandarra eskatuko da.
8. Mugikortasun-programan parte hartzeko prozedura aurreko ikasturteko azaroan hasten da.
9. Mugikortasun-programen kudeaketan, unibertsitateko unitate bik hartzen dute parte, eskuduntza ezberdinekin:
  - ✓ BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileak honako ardurak ditu:
    - Mugikortasun-plazak proposatu eta onartzea
    - Hautagaiak aukeratzea, Batzorde Akademikoko kideekin batera
    - Leudekeen plazei buruzko orientazioa ematea, arlo akademikoari dagokionez
    - Xede-unibertsitatean egin beharreko ikasketak jasotzen dituen hitzarmen ekonomikoa onartzea
    - Ikaslearen matrikula berrestea
    - BAMEko idazkari akademikoari aholkuak eskaintzea, aitorpenetarako eta aktak tramitatzeko.
  - ✓ Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko harremanetarako bulegoaren ardura da eskaerak, bekak, aseguruak, hizkuntza-probak eta hitzarmenak tramitatzeko, eta orobat, ikaslearen egonaldiarekin zerikusia duten auzi administratibo guztiak.

## **2. artikulua Parte hartu ahal izateko baldintzak**

1. BAMEko Lehen Hezkuntzako ikasle ofiziala izatea.
2. Graduoko lehen kurtso bietatik, 114 ECTS kreditu gaindituta izatea, gutxienez, xede-unibertsitateko egonaldia hasi aurretik.
3. Lehenengo kurtsoari dagozkion 60 ECTS kredituak gaindituta izatea, eskaera egiteko unean, aurreikusitako epeen barruan.
4. Lehenengo eta bigarren kurtsoan gainditu gabeko ikasgaien ezohiko deialdietara aurkeztea egonaldia hasi aurreko ikasturtean, eta egonaldiak dirauen bitartean, beharrezko balitz.
5. Xede-unibertsitatean hautatutako ikasgaiak ematen diren hizkuntzan, maila aurreratua (C1) egiaztatzea. Aipatutako maila egiaztatzen duen agiririk izan ezean, ikaslea helburu horretarako ezarri diren barne-probetara aurkeztu beharko da.
6. Aurre-eskaera, eskaera, hizkuntza-proba eta eskatutako dokumentuak ezarritako epeetan aurkeztea.

7. Mugikortasun-programari lotuta, indarrean dauden araudi eta prozedurak onartzea; horretarako, araudi honen 1. ERANSKINean jasotako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

### **3. artikulua Plazak esleitzeko irizpideak**

1. Plazak honako irizpideei jarraiki esleituko dira:
  - ✓ Ikasketa-espeditentea. Ikasketa-espeditentean, batez besteko kalifikazioa 7,00 izango da, gutxienez.
  - ✓ Hizkuntzaren ezagutza-maila
  - ✓ Motibazioa eta heldutasuna
2. Ezohiko kasuak modu indibidualean aztertuko dira, eskatutako xede-unibertsitatearen eta plaza-kopuruaren arabera.

### **4. artikulua Plaza esleitzea eta onarpena**

1. Plazen esleipena martxoko lehenengo hamabostaldian argitaratuko da.
2. Plazak argitara ematen direnetik, ikasleek 15 egun izango dituzte esleipena onartzeko, uko egiteko edota helmuga-aldaketa eskatzeko.
3. Ikasleak galdu egingo du mugikortasun-programan parte hartzeko aukera, baldin eta uko egiten badio esleitutako plazari, onarpena sinatu ondoren eta behar bezala arrazoitu gabe, edota aurreikusitako datetan azaltzen ez bada xede-unibertsitatean.
4. Eskatutako kreditu-kopurua gaindituta izan ezean, ikasleak galdu egingo du esleitutako plaza.

### **5. artikulua Hitzarmen akademikoa**

1. Plaza onartutakoan, ikasleak xede-unibertsitatean egin beharreko ikasketa-proposamena aurkeztu beharko dio BAMeko mugikortasun-programen koordinatzaileari, aurrez hitzoruda eskatuta.
2. Ikasketa-proposamena onartzen bada, Ikasketen Balioa Onartzeko Aurretiko Konpromisoa izenpetu beharko dute ikasleak eta unibertsitate biek; bertan, BAMen zein xede-unibertsitatean matrikulatu beharreko ikasgaiak azalduko dira.
3. Adostutako matrikulan inolako aldaketarik egitekotan, BAMeko mugikortasun-programen koordinatzailearen oniritzia beharko da aurretik. Aldatzeko eskaerak ikaslea xede-unibertsitateara heldu osteko 15 egunen barruan egin beharko dira.
4. Oniritzia jaso ez duten ikasgaiak ez dira aitortuko.

### **6. artikulua Arau akademiko espezifikoak**

1. Ikasleak xede-unibertsitatearen egutegira egokitu beharko dira, eta bertako araudira.
2. Ikasleak gainditu gabeko ikasgaiak baditu urreko ikasturtetik, eta ezohiko deialdietara aurkeztu ezin bada,
  - ✓ BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileari jakinarazi beharko dio, idatziz, abiatu baino hilabete arinago.
  - ✓ BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileak ezohiko ebaluazio-proposamena bideratuko du ikasgaiaren ardura duen irakaslearekin.
  - ✓ Posible balitz, aukera egongo da azterketa edo bestelako frogaren bat egiteko xede-unibertsitatean.
  - ✓ Eskolako azterketa-egutegi ofizialetik kanpo ere onar daiteke ebaluazioa; kasu horretan, lortutako kalifikazioa deialdi ofizialean jasoko da eta ezin izango da erabili, ofizialki, deialdi horretan argitaratu arte.
3. Ikaslea ikasketa-itunean zehaztutako ikasgai guztietara aurkeztu beharko da xede-unibertsitatean, eta gainditu egin beharko ditu.
4. Kalifikazioak modu ofizialean bidaliko ditu xede-unibertsitateak BAMera, ikasketa-espeditentean adostutako aitortzenak tramitatzeko.
5. Kalifikazio-sistemak aldatu egiten direnez unibertsitatetik unibertsitatera, ikasleak kalifikazioak bihurtzeko erabiliko diren irizpideei buruzko informazioa jasoko du, Deustuko Unibertsitateak onartutako kalifikazioak bihurtzeko taularen arabera.
6. Ikasgaiaren bat gainditu gabe geldituko balitz ohiko deialdian, ikaslea xede-unibertsitatean bertan aurkeztu beharko litzateke bigarren deialdira.
7. Xede-unibertsitatean deialdi biak agortutakoan, ikasgaiaren bat gainditzeko balego, ikasleak ikasgai baliokideak (eta ECTS kreditu kopuru baliokidea) egin beharko ditu BAMen hurrengo ikasturtean, hirugarren deialdian. Lehenengo biak ez gainditu gisa agertuko dira espeditentean; edo ez aurkeztu gisa, hala balitz.
8. Xede-unibertsitateko araudiak deialdi bakarra aurreikusiko balu, hala egingo da.

## **7. artikulua Akta ofizialak betetzeko eta kredituak aitortzeko prozedura**

1. BAMEko idazkari ofizialak aitortuko ditu kredituak eta akta ofizialak bete, xede-unibertsitatetik dokumentazioa jaso eta 15 egunen barruan, eta posible denean, hurrengo ikasturteko matrikula ofizialaren data baino bi aste lehenago, gutxienez.
2. Kredituak aitortzeko, ikasleak honako urratsak egin beharko ditu:
  - ✓ Hitzordua eskatu posta elektronikoz BAMEko mugikortasun-programako koordinatzaileari, egonaldia amaitu baino astebete lehenago.
  - ✓ Bilerara ondoko dokumentazioa eramatea: lortutako kalifikazioen kopia; izenpetutako hitzarmenaren kopia; ikasgaiak aldatzeko eskaeren kopia eta onarpenarena (ikasgaiak

aldatu balira); egonaldiaren memoria, webgunean eskuragarri dagoen inprimakiari jarraiki.

## **8. artikulua Diziiplina-araubidea**

1. Ikasle batek modu desegokian jokatuz gero, Deustuko Unibertsitateko ikasleen araudiak<sup>1</sup> diziiplina-araubideko IV tituluari jasotzen duena aplikatuko da, kontuan hartu gabe xede-unibertsitatean ezarritakoa.

## **9. artikulua Araudi hau aldatzea**

2. Araudi hau aldatu egin ahal izango da, BAMeko mugikortasun-programen koordinatzaileak proposatuta, edo BAMeko Batzorde Akademikoaren edo Zuzendaritza Taldearen ekimenez.

## **Xedapen gehigarria – Ezohiko egoerak**

1. Aurreko artikuluetan jaso ez diren ezohiko egoerak BAMeko mugikortasun-programen koordinatzaileak ebatziko ditu, eta azken buruan, BAMeko idazkari akademikoak.

## **Xedapen indargabetzailea**

1. Araudi hau indarrean jartzen den datatik aurrera, indargabeturik geratzen dira aurreko guztiak.

## **Azken xedapena- Araudi hau indarrean jartzea**

1. Araudi hau 2016ko urriaren 20an jarriko da indarrean.

---

<sup>1</sup> Errektorearen 11/2015 Agindua, uztailaren 24koa, Deustuko Unibertsitateko Ikasleen Araudia aldarrikatzen duena, 2015eko uztailaren 23ko Zuzendaritza Kontseiluan onartutakoaren arabera.

## 1. ERANSKINA

### **BEGOÑAKO ANDRA MARI IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN MUGIKORTASUN-PROGRAMEN ARAUDIA EZAGUTU ETA ONARTU IZANAREN ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

IZEN-DEITURAK

---

NA

---

### **ADIERAZTEN DUT**

**Dokumentu osoa irakurri dudala, eta bertan ageri diren baldintzak onartzen ditudala.**

SINADURA

DATA

---